

## Hibernatzen ari diren hartzak eta mugitu ezin diren pertsonak tronboetatik zerk babesten dituen aurkitu dute

Epe luzeko mugiezintasuna duten pertsonak eta hibernatzen ari diren hartzak odolbilduak osatzeko gako den proteina baten maila txikiagoak dituzte, eta horrek babesten ditu tronboak edo enboliak izatetik. Horixe erakusten du *Science* aldizkarian argitaratu duten ikerketa batek.

Denbora luzez geldirik egotean tronboak eta enboliak izateko arriskua handitu egiten den arren, mugiezintasun kronikoa duten pertsonak ez dute pertsona osasuntsuek baino tronbosi gehiago izaten. Eta hartzek ere, hilabeteetan hibernatzen egon arren, ez dute horrelako arazorik izaten. Ikertzaileek ikusi dute bi kasuetan HPS47 proteina gutxiago dutela odolean.


Saguekin egindako probetan baieztatu dute HSP47 proteinarik ez duten saguetan askoz odolbildu gutxiago sortzen direla. Eta ikusi dute gauza bera gertatu zaiela beste esperimentu baterako, borrontatez, denbora luzez ohean egon ziren 12 pertsona osasuntsurekin. Kasu horretan, 27 egun geldirik egon ondoren, HSP47 proteinaren maila jaitsi egin zitzairen. ●



ARG.: Pixamio/Pixabay.

## Inoiz behatutako galaxia nano urrunena hauteman dute

James Webb Space (JWST) teleskopioaren be-reizmen handia eta grabitazio-lente ahaltzu bat erabiliz, ikertzaile-talde batek ondorioztatu du hasierako unibertsoan sortu ziren galaxiak oso txikiak zirela. Haien esanean, horrek adierazten du bilakaera-prozesu hierarkiko bat gertatu zela, zeinean galaxia nanoetatik abiatuta galaxia handiak sortu baitziren; Esne Bidea, adibidez.



Koloretako irudiko 3 zirkuluak lehen planoan dauden galaxia-multzo distiratsuek handitutako galaxia urrunaren hiru irudiak dira. ARG.: ESA/Webb, NASA & CSA, P. Kelly.

Horrez gain, urruneko unibertsoan zenbait galaxiaren espektroak aztertuz, taldeak baieztatu du inoiz aurkitu den galaxia nano urrunena hauteman duela. Azaldu duenez, galaxia txiki eta argitasun oso txikiko hori eratu zen lehenetariko bat izan zen, Big Banga gertatu eta 500 milioi urte soilik igaro ondoren, unibertsoaren bolumena gaur baino milaka aldiz txikiagoa zenean. Aurkikuntza hori kasualitatez egin dutela adierazi du Tom Broadhurst ikerketa-taldeko kide, EHUko Ikerbasque irakasle eta DIPCKo kide elkartuak. ●